

Iciar Bollain: «Idaztea maite dut, baina zuzendu edo aktore gisa aritzea maiteago»

Zinemagile madrildarra pozarren dago Cannesen Kritikaren Saria jaso duelako

Montse Arregi / Bilbo

Bihar estreinatuko da *Flores de otro mundo*, Iciar Bollainen bigarren film luzea. Zinema zuzendari, gidoigile eta aktore madrildarrak Bilbon aurkeztu zuen atzo Cannesen Kritikaren Saria jaso berri duen lana. Gaztelako herrixka batera bizi-modu berri baten bila joandako emakume batzuen esperientzia islatu du bertan.

ICIAR BOLLAIN zinemagileak «harriturik eta poz handiz» hartu du Cannesko Zinemaldian eman berri dioten Kritikaren Saria. «Ez genekien Kritikaren Astean saririk zegoenik ere, eta guretzat nahikoa sari bazen Cannesen egotea», ziurtatu zuen atzo Bilbon. *Flores de otro mundo* (Beste mundu bateko loreak) film saritua aurkeztera etorri zen atzo Bollain Euskal Herrira, Pepe Sancho eta Marilyn Torres aktoreak lagun zituela.

Emakumeen emigrazioaren gaia ukitu du madrildarrek bere bigarren film luzean. Gaztelako herrixka batera bizimodu hobearen bila abiatutako zenbait emakumeren esperientzia kontatu du. Andrearik ez dago herrian, eta, horregatik, karabana moduko bat antolatu dute herriko ezkongabeek, autobus bete emakume ekarrita. Dominikar Errepublikako Patricia (Lisette Mejia), Habanako Milady (Marilyn Torres) eta Bilboko Marirrosi (Elena Irureta) dira emakume protagonistak, eta bakardadeak lotzen ditu herriko beste



Iciar Bollain zuzendaria atzo, Bilbon, Marilyn Torres eta Pepe Sancho aktoreekin.

horrenbeste gizonekin (Pepe Sancho, Luis Tosar eta Chete Lera). Hiru istorio kontatzen ditu, beraz, filmak.

Emakumeen ikuspuntua landu du Bollainek, «eurek arriskatzten dutelako gehien, aurreko bizitza atzean utzi eta berria eraiki behar baitute».

Filma egiteko ideia telebistan ikusitako dokumental batek eman zion zinemagileari. «Emakumeek eta gizonen arteko elkar ezagutzeko egiten duten jaiaren ostean hasten da pelikula; bikoteen bizikidetzarekin, alegia. Dokumentala ikusitakoan neure buruari egin nizkion hainbat galdera izan dira abiapuntua; esaterako, nola

sentitzen da emakume karear bat Gaztelako herri txiki batera bizitzera joanda?», azaldu zuen.

Gidoia Julio Llamazaresekin batera landu du Bollainek. Halako esperientzia bizi izan duten lagunekin elkarriketatuz ziren istorioa idazteko, eta «istorio zoriontsuak eta tristeak» aditu zituztela adierazi zuen, «filmean kontatzen direnak bezala».

Filmaketa konplexua

Filmaketa nahiko korapilatsua izan zela aitortu zuen Bollainek, 50 pertsonaia baitaude berba egiten dutenak. Hala ere, Cantalojas herrian «oso esperientzia polita» bizi

izan zutela jakinarazi zuen. Casting luze baten ondoren, aktore profesionalak herriko jendearekin eta aktore lanean aritu ziren emigranteekin ondo integratzea lortu zuen.

Gidoilari, zuzendari eta aktore da Bollain. Gustuko ditu lan horiek, baina lan taldean aritzea maite du, eta, horregatik, zerbait aukeratzekotan aktore eta zuzendari lanak nahiago dituela adierazi zuen. «Idaztea maite dut, baina zuzendu edo aktore gisa aritzea maiteago».

Aurrera begira aktore gisa ariko da Jose Luis Borauren hurrengo filmean, eta bere filmetarako gidoiak egiten jarraitzeko asmoa du.

Markeliñek Max sarietarako izendapena jaso du 'Kartoi biraka' ikuskizunarengatik

■ Igor Yebra bilbotarra gizonezko dantzaririk onenaren sarirako izendatu dute

Jon Eskisabel / Donostia

MARKELIÑE taldeak arte eszenikoetako Max sarietarako izendapena jaso du haurrentzako antzerki ikuskizunik onenaren atalean. Espainiako Egileen eta Argitaldarien Elkarte Nagusiak (SGAE) banatzen ditu sariok —aurten da bigarren aldia—, eta zinema arloko Goya sarien maila berekoak dira. Sarien banaketa ekitaldia datorren astelehen gauean egingo da Bartzelonako Auditorioan, eta Espainiako Telebistak zuzenean eskainiko du bigarren katetik.

Kartoi biraka obrarengatik hautatu dute Markeliñe Max Sarietarako. Ikuskizun hori joan den urtean estreinatu zuen Zorrotzako taldeak, eta geroztik berrehun emanaldi inguru eskaini ditu Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan. Beste bi ikuskizunekin lehiatu beharko du Markeliñek astelehenean: Malagako El Espejo Negro taldearen *De locura* eta Madrilgo Pigmalión taldearen *Peter Pan* ikuskizunekin, hain zuzen. Dena den, hautagaien artean izatea jada nahikoa saria dela azaldu dute Markeliñeko kideek.

Bizkaiko antzerki taldea ez da euskal hautagai bakarra, Igor Yebra bilbotarra gizonezko dantzari onenaren saria jasotzeko izendatuen artean baitago, Antonio Canales eta Victor Ullaterekin batera. Halaber, Fernando Bernues zuzendariak antzezlan onenaren saria jaso lezake, *El florido pensil* lanaren katalanezko bertsiorengatik.

Arte antzezlanak eta *Guys & Dolls* musikalak jaso dituzte izendapen gehien aurtengo ekitaldian, zortzi eta bost izendapen, hurrenez hurren. Antzerki obra onena izateko hautagaiak *Arte*, *El florido pensil* eta *Master class* dira. Mario Gas, Albert Boadella eta Josep Maria Flotats dira zuzendari onenaren ataleko hautagaiak.

Xabier Elorriaga: «Zinemak zirikatzaile kulturala izan behar du»

■ 'El Faro' film laburra estreinatuko dute gaur gauean, Gasteizko I. Zinemaldiaren barruan

I. Santamaria / Gasteiz

XABIER ELORRIAGA aktoreak zinema erakustaldien balioa defendatu zuen atzo, Veronica Forque eta Saturnino Garciarekin batera Gasteizko Zinemaldiaren barnean eskainitako mahai-inguruaren aurkezpenean. Elorriagaren hitzetan, zinemaldiek «zirikatzaile kulturalak» izan behar dute. Izaera

hori dela eta, zinema «denborapasa bat baino zeozer gehiago» badela erakutsi behar dute horrelako ekitaldiek. «Jendearen heziketan laguntzen duen entitate artistiko bat da zinema», azaldu zuen aktoreak.

Gasteizko I. Zinemaldiko izarrak izan ziren Xabier Elorriaga, Saturnino Garcia eta Veronica Forque. Arratsaldean euren esperientziak azal-

du zituzten publikoaren aurrean, Luis de Ajuria aretoan eginiko mahai-inguruan.

Saturnino Garcia Bilboko aktorearen hitzetan, horrela ekitaldietan garrantzitsua da ikusleari film onak eta txarrak bereizteko irizpideak lantzeko modua ematea. «Publikoaren irizpideak landu behar dituzte zinemaldiek. Oso ona da jendeak bere irizpideak izatea».

Gaur 22:30etan *El Faro* film laburra estreinatuko da Guridi zinemaren. Manuel Balaguerrek idatzi eta zuzendu du pasioa eta gorrotoa nahasten dituen istorioa, eta Silvia Munt aktore nagusia.

Goizeko emanaldian *Ipar Haizearen itzulera* ikusi ahal izango da. Euskal filme horrek animazio filme onenaren Goya saria irabazi zuen 1994an.